ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2018ko martxoaren 28a, asteazkena • 37 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**54/2018 Foru Agindua, martxoaren 14koa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko lanpostu batzuk betetzeko 1/2018 lehiaketa deitzen duena eta deialdiaren oinarriak onartzen dituena**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoan, badira lanpostu hutsak, eta lanpostu horiek funtzionarioek betetzeko gordeta daude, aurrekontuetan zuzkituta daude eta lehiaketa prozeduraren bidez bete behar dira, 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 46. artikuluan eta Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 63/2016 Foru Dekretuak onartu zuen indarreko lanpostuen zerrendan ezarritakoari jarraiki. Indarreko lanpostuen zerrenda 110. zenbakidun ALHAOn, irailaren 30ekoan, argitaratu zen eta abenduaren 20ko 73/2016 Foru Dekretua dela bide aldatu zen, martxoaren 21eko 176/2017 Erabakiaren bidez eta abenduaren 29ko 826/2017 Erabakiaren bidez.

Apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarenak, 37. artikuluan xedatutako negoziazio izapidea bete da.

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren araubidea onartzen duenak, 11. artikuluan ezarritakoari jarraiki,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 1/2018 zenbakidun lehiaketaren deialdia egitea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoan lanpostuak betetzeko xedez.

Bigarrena. Deialdiaren oinarriak, deitutako lanpostuen funtsezko eginkizunak eta lehiaketan aterako diren lanpostuen zerrenda onartzea. Horiek guztiak I, II eta III. eranskinetan jasota daude.

Hirugarrena. Administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahalko da ebazpen honen aurka, argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera, bi hilabeteko epean, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegiaren aurrean edo, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa, hilabeteko epean, agindua eman duen organoaren aurrean, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatzen denari jarraiki, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. artikuluan ezarritakoaren ildoan.

Gasteizen, 2018ko martxoaren 14an

*Gizarte Zerbitzuetako diputatua*
*M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO*

*Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria*
*MIREN SARATXAGA DE LA ISLA*

## I. ERANSKINA
## GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEKO LANPOSTU BATZUK LEHIAKETA SISTEMAREN BIDEZ BETETZEKO 1/2018 DEIALDIAREN OINARRIAK

LEHENENGO OINARRIA. DEIALDIAREN XEDEA.

Honako deialdi honen xedea da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko lanpostu hutsak lehiaketa sistemaren bidez betetzea. Aipatutako lanpostuen zerrenda honako deialdi honen III. eranskinean ageri dira.

Halaber, ondore aldian, zerbitzuaren beharrizanei erantzuteko egokitzat jotzen denean, funtzionarioek II. eranskineko lanpostu hutsen jabetza hartzearen ondorioz Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean hutsik geratzen diren lanpostuak ere sartuko dira, lehiaketa bidez bete beharreko lanpostuak baldin badira.

Ondore aldirako deialdia gehienez ere 2 hilabeteko epean egingo da, deialdi honetako azken jabetza hartzen den egunetik zenbatzen hasita. Lehenengo aldian parte hartu ez duten edo, parte hartu arren, lanposturik lortu ez duten funtzionarioek bakar-bakarrik parte hartu ahal izango dute ondore aldi horretan.

BIGARRENA. LEHIAKETARIEN BETEKIZUNAK.

1. Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionarioek, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, jardunean egotea, zerbitzu berezietan egotea edo lanpostua gordetzea ekartzen duen borondatezko edozein eszedentzia mota hartuta egotea. Halaber, lanpostuak betetzeko lehiaketaren bidez jarduneko zerbitzura itzuli ahal izango dira derrigorrezko eszedentzian daudenak, beste administrazio publiko batzuen zerbitzuan daudenak eta borondatezko etenaldia edo eszedentzia dutenak, baldin eta egoera horietan egin behar zuten denbora bete badute.

b) Deialdi hau argitaratu aurreko bi urteetan, lehiaketa bidez behin betiko destinorik lortu ez izana.

Bi urteko epe hori ez da ezinbesteko betebeharra izango, baldin eta karrerako funtzionarioek behin-behineko atxikipen bidez haiena ez duten beste lanpostu batean badihardute, betetzen zuten lanpostuaren zereginak aldatu direlako, lanpostua deuseztatu delako edo lanpostu horretarako izendatu zuen organoak langilearen ukoa onartu duelako.

c) III. eranskinean ageri dien lanpostuetan zehaztutako betekizunak betetzea.

2. Lehiaketariek bete beharreko baldintzei eutsi beharko diete esleitutako lanpostuez jabetu arte.

3. Behin-behinean atxikita dauden karrerako funtzionarioek lehiaketa honetan parte hartu beharko dute; haietan aritzeko betekizunak betetzen dituzten lanpostu guztiak eskatu beharko dituzte.

HIRUGARRENA. DESTINOA ESKATZEA.

Eskabidean, lehiaketaria zein lanpostutan lehiatuko den jaso behar da, lehentasunaren hurrenkeran, bai eta SEIGARREN oinarriaren 4. ataleko merezimenduak ere.

Eskaerak aurkezteko epetik kanpo ez da onartuko uko egiteko eskaerarik, salbu eta horretarako ezarritako aldian egiten direnak deialdi honen ZAZPIGARREN oinarrian azaldutako moduan, non eta ez den beste destino bat lortu, deialdi publiko baten bitartez, jabetza hartzeko epea amaitu aurretik.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

LAUGARRENA. BALORAZIO BATZORDEA.

Balorazio batzordeak baloratuko ditu lehiaketariek aurkeztutako merezimenduak. Honako hauek osatuko dute batzordea:

BATZORDEBURUA:

Langileen Arloko zuzendariorde teknikoa.

BATZORDEKIDEAK:

Adinekoen Arloko, Pertsona Ezinduen Arloko, Desgaitasunaren Arloko eta Antolaketa eta Informatika Arloko zuzendariorde teknikoak.

Langileen ordezkari bat.

IDAZKARIA:

GOFEko karrerako funtzionario bat, A edo B taldeetakoa. Idazkariak hitza izango du, baina botorik ez.

BATZORDEKIDE-AHOLKULARIAK: Balorazio Batzordeak adituak izendatu ahal izango ditu euren espezialitateetako gaietan aholkua eman dezaten. Aditu horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

Balorazio Batzordea osatu eta jardutea izan dezan, gutxienez kideen erdia eta bat gehiago bildu beharko dira, eta horien artean, nahitaez, batzordeburuak eta idazkariak egon behar dute.

Baldin eta prozeduraren barruan Balorazio Batzordeak jakiten badu hautagairen batek deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez duela, hautagai hori baztertzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak egindako oker edo faltsutzeak jakinaraziz, betiere interesdunari entzun ondoren.

BOSGARRENA. ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Honako deialdi honetan parte hartzeko eskabideak bide telematikoz aurkeztu beharko dira, eredu ofizial eta estandarizatuaren bidez, “Langileen kontsultak” izeneko atalean dagoen lanpostuak betetzeko lehiaketaren atala erabiliz. Atal horretara sar daiteke Intranetetik edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Ataritik (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/), 10 egun balioduneko epean, deialdia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

Eskabideak Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuari helaraziko zaizkio. Eskabideetan, honako hauek azalduko dira:

a) Deialdi honen BIGARREN oinarrian eskatutako baldintzak betetzen direla dioen aitorpena.

b) Nahi diren lanpostuak eta horien lehentasunezko hurrenkera.

c) Aurkezten diren merezimenduak: SEIGARREN oinarriaren 4. atalekoak bakar-bakarrik.

Balorazio Batzordeak epea ezarriko du zehazten dituen merezimenduak egiaztatzeko; hala, ezin izango da alegatu merezimendu horiek egon badaudela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen administrazio agiritegietan. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak onartutako antzinatasunari buruzko merezimenduak ez dira egiaztatu beharko. Halaber, ez da egiaztatu beharko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko lanpostuetan emandako denbora, egindako lanaren eta antzinatasunaren ebaluazioari dagokionez.

Merezimenduak baloratzeko erreferentziazko data ALHAOn argitaratzen dena izango da eta, hortaz, ez dira baloratuko Balorazio Batzordeak berariaz eskatu baina egiaztatu ez diren merezimenduak, nahiz eta eskabidean aipatu.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

SEIGARRENA. LEHIAKETAREN GARAPENA.

Honako lehiaketa honetan, gehienez ere, 14 puntu lortu ahal izango dira, euskararen jakintzari buruzko balorazioa alde batera utzita.

Lanpostuak esleitzeko helburuz, merezimenduak baloratzean, honako alderdi hauek aintzat hartuko dira:

1. Egindako lanaren balioespena:

Balorazio horretan, aintzat hartuko da hautagaiek betetako lanpostuen eta eskatutako lanpostuen arteko antzekotasuna, eduki teknikoari eta espezializazioari dagokienez. Gehienez ere, 3 puntu lortu ahal izango dira:

a) 0,05 puntu, talde berean sailkatutako lanpostu berdinetan egindako hilabete bakoitzeko; gehienez ere, 3 puntu.

b) 0,022 puntu, talde berean sailkatutako antzeko lanpostuetan egindako hilabete bakoitzeko; gehienez ere, 2 puntu.

c) 0,011 puntu, talde berean sailkatutako beste lanpostu batzuetan egindako hilabete bakoitzeko; gehienez ere, 1 puntu.

Atal honetako (egindako lanaren balorazioa) guztizko puntu kopurua kalkulatzeko, betiere, a), b) edo c) ataletan ageri diren irizpideak erabiliko dira, kasuan-kasuan.

Atal honetako balorazioa egiteko, betetako lanpostutzat joko dira hautagaia lan kontratudun gisa edo karrerako funtzionario gisa titularra izan den lanpostuak. Baztertu egingo dira, beraz, garai batean egiten ziren aldi baterako barne sustapenak eta egungo zerbitzu eginkizunak.

Betalde, c) letrari dagokionez, Lanpostuen Zerrendan jasota dauden egungo sailkapeneko taldeen aplikazioa hedatuko da lan kontratudun langileen bidez betetako lanpostuetara.

2. Antzinatasuna.

Lehiaketariek administrazio publikoentzat egindako zerbitzuengatik onartuta daukaten antzinatasuna hartuko du kontuan Balorazio Batzordeak. Lehiaketariek, gehienez ere, 3 puntu lotu ahalko dituzte, honela: 0,2 puntu deitutako lanpostuaren sailkapen-talde berdinean edo maila goragoko talderen batean onartutako hirurteko bakoitzeko; 0,10 puntu maila beheragoko talderen batean onartutako hirurteko bakoitzeko; eta 0,0055 puntu azken hirurtekoa burutu ondoren emandako hilabete bakoitzeko.

3. Egungo lanpostuan egindako denbora.

Egungo lanpostuan (lanleku jakin bateko lanpostu zehatz batean), lan kontratudun langile finko gisa edo karrerako funtzionario gisa, etenik gabe egindako denborarengatik, gehienez ere 5 puntu emango dira. Hona hemen horretarako erabiliko den eskala:

3 urte baino gutxiago: 0 puntu.

Lanpostuan emandako 37. hilabetetik (hura barne) aurrera: 0,012 puntu hilabete bakoitzeko.

Atal honetako balorazioa egiteko, betetako lanpostutzat joko dira hautagaia lan kontratudun langile gisa edo karrerako funtzionario gisa titularra izan den lanpostuak. Baztertu egingo dira, beraz, garai batean egiten ziren aldi baterako barne sustapenak eta egungo zerbitzu eginkizunak.

Lanpostua behin-behineko atxikipenean betetzen ari bada, karrerako funtzionarioaren izaera birgaitzearen ondorioz jarduneko zerbitzuan berriro hasi delako, 3. atal honetan araututako gehieneko puntuazioa eskuratuko da.

Karrerako funtzionario batek jarduneko zerbitzura itzultzeko eskatzen badu lekualdatze lehiaketan parte hartzearen ondorioz, gaur egun GOFEko inongo lanpostutan ari ez denez, 0 puntuko balorazioa jasoko du atal honetan.

Lanpostuan etenik gabe egindako denborari dagokionez, salbuespen hauek ezarriko dira:

— Seme-alabak edo odolkidetasuna nahiz ezkontzazko ahaidetasuna bigarren mailara arteko senideak zaintzeko eszedentzia. Horrelakoetan eszedentzia aldi hori lanpostuan emandako denboratzat hartuko da.

— Borondatezko beste eszedentzia batzuk, lanpostua gordeta, eta zerbitzu bereziak gauzatzeko egoera. Horrelakoetan, lanpostuan emandako denbora ez da etentzat hartuko, baina ez da aintzat hartuko funtzionarioak egoera horretan emandako denbora.

— Borondatezkoa ez den prozeduraren batez –lanpostua ezabatzea, lanpostutik mugiaraztea edo baliabideak berresleitzea– lekuz aldatzea, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak, azaroaren 7ko 16/1997 Legearen bidez aldatuak, 50., 51. eta 54 bis artikuluetan xedatutakoaren arabera. Horrelakoetan, lanpostuan etenik gabe emandako denboratzat lanpostu bietan (amortizatutakoa eta egungoa) egindako denbora hartuko da.

4. Titulu akademikoak eta prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak:

Gehieneko balorazioa puntu batekoa izango da.

Eskuratu nahi den lanposturako beharrezkoak ez diren beste titulu ofizial batzuk izatea baloratuko da, baita prestakuntza osagarriko ikastaroak ere, baldin eta horiek IVAP-HAEEn edo Administrazio Publikoko beste eskola batzuen bidez egin badira eta eskuratu nahi den lanpostuko eginkizunekin zuzeneko zerikusia badute.

Prestakuntza osagarriko ikastaroen ziurtagirietan, orduen kopurua zehaztu beharko da; bestela, ez dira baloratuko.

Honako baremo honen arabera egingo da balorazioa:

a) Gehienez ere, eskuratu nahi den lanpostuaren sailkapen taldetik maila bat gora dagoen talde bati dagokion titulua egiaztatzea: 0,25 puntu.

b) 20 orduko edo handik gorako iraupena izan duten prestakuntza ikastaroak: 0,10 puntu.

c) 50 orduko edo handik gorako iraupena izan duten prestakuntza ikastaroak: 0,25 puntu.

d) 100 orduko edo handik gorako iraupena izan duten prestakuntza ikastaroak: 0,50 puntu.

b), c) eta d) idatz zatietan zehaztutakoen batura ezin izango da inoiz 0,50 puntu baino gehiago izan.

5. Gradu pertsonala.

Eskuratu nahi den lanpostuari dagokion destino osagarriaren maila gainditzen duen gradu pertsonal sendotu bakoitzeko 0,5 puntu; gehienez ere 2 puntu.

6. Euskararen jakintza.

Euskararen jakintza egiaztatu ahal izango da apirilaren 15eko 86/1997 DEKRETUAK, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko prozedura arautzen duenak, eta apirilaren 8ko 64/2008 DEKRETUAK, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markora egokitzekoak, ezarritakoari jarraiki. Prozesuaren garapenak irauten duen artean, ez da berariazko probarik egingo hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko.

Igarotako derrigortasun data duten lanpostuei dagokienez, ezinbestekoa izango da kasuan kasuko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea lanpostua eskuratu ahal izateko.

Euskara merezimendutzat balioesten den lanpostuei dagokienez, hizkuntza eskakizunen bat egiaztatzen dutenek hautaketaren gainerakoan lor daitekeen gehieneko puntuazioa lortuko dute, honela:

1HE: 0,70 puntu.

2HE: 0,84 puntu.

7. Puntu kopuruetan berdinketarik izanez gero, honako atal hauetan lortutako puntuazioa aintzat hartuko da berdinketa ebazteko, hemen ageri diren hurrenkera berean:

— Egindako lanaren balioespena.

— Egungo lanpostuan egindako denbora.

— Antzinatasuna.

— Titulu akademikoak eta prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak.

— Karrerako funtzionario gisa hasitako data lehiatzen den eskalan (datarik zaharrenak lehentasuna izango du).

— Arabako Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Foru Planaren 1.4.3 ekintzan ezarritako irizpideak.

Hori guztia gorabehera, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 51.2 artikuluan zehaztutako moduan, lehen izandako lanpostua kendu izanaren ondorioz beste bati behin-behinean atxikitako funtzionarioek destinoaren esleipenerako lehentasunezko eskubidea izango dute.

8. Destinoaren esleipena jasotzeko behar den gutxieneko puntuazioa.

Ez da gutxieneko puntuaziorik ezarri lehiaketa gainditu eta destinoaren esleipena jasotzeko.

ZAZPIGARRENA. ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDAK.

Eskabideak era telematikoz aurkezteko epea bukatutakoan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Intraneten argitaratuko dira lanpostu bakoitzean onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak. Zerrendak argitaratzen diren egunaren hurrengotik zenbatzen hasita, 3 egun baliodunеko epea izango da erreklamazioak egiteko edo aurkeztutako eskabideari uko egiteko. Epea igarotakoan, erreklamazioak ebatzi eta, ukorik egonez gero, horiek onartu ondoren, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

ZORTZIGARRENA. EMAITZAK ARGITARATZEA.

Lehiaketarien merezimenduak arautətako eran baloratutakoan, Balorazio Batzordeak lehiaketarien zerrenda argitaratuko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Intraneten, lortutako puntuen araberako hurrenkeran. Halaber, 3 egun baliodunеko epea emango du, argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera, erreklamazioak aurkezteko Balorazio Batzordeari berari.

BEDERATZIGARRENA. DESTINOAK ESLEITZEA.

1. Balorazio Batzordeak, lehiaketariek aurkeztutako erreklamazioak ebatzitakoan, lortutako puntuen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Aurreko idatz zatian aipatutako zerrendaren arabera lortutako guztizko puntuazioaren eta lehiaketariek adierazi dituzten lehentasunen arabera aterako da lanpostuak esleitzeko hurrenkera; hori guztia, destino esleipenerako lehentasunezko eskubidea ezertan eragotzi gabe, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 51.2 artikuluan, lehenago zeukaten lanpostua kentzearen ondorioz lanpostu bati behin-behinean atxikita dauden funtzionarioei aitortzen dienaren arabera.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Irizpide horiekin bat, Balorazio Batzordeak destinoak esleitzeko proposamena egingo dio Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatu andreari.

2. Ezin izango zaie uko egin esleitutako destinoei, eta ezin izango da parte hartu destinoen jabetza hartu eta hurrengo bi urteetan lanpostuak betetzeko egin litezkeen deialdietan, salbu eta Euskal Funtzio Publikoaren Legeak 50. artikuluan xedatutako kasuetan.

3. Lehiaketaren ebazpenaren ondorioz, funtzionarioa bizilekuz aldatu beharko balitz, aldaketa hori borondatezkotzat hartuko da eta funtzionarioak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

HAMARGARRENA. LANPOSTUAZ JABETZEA.

Destinoa lotzen duten lehiaketariak lanpostuaz jabetuko dira 2018ko urriaren 1ean, lehiaketaren ebazpenean adieraziko den moduan. Ebazpen hori berariaz emango du Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak.

HAMAIKAGARRENA. GORABEHERAK.

Balorazio Batzordeari ahalmena ematen zaio oinarri hauetan zehaztu gabeko gai guztietan lehiaketaren hobe beharrez hartu beharreko erabakiak hartzeko eta sortzen diren zalantzak argitzeko.

HAMABIGARRENA. AURKARATZEAK.

Oinarri hauek, deialdia bera eta horretatik zein Balorazio Batzordearen jardunetik sortzen diren administrazio egintza guztien aurka egin ahal izango dute interesdunek, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako kasu eta moduetan.

## II. ERANSKINA
## DEIALDIKO LANPOSTUETAKO FUNTSEZKO EGINKIZUNAK

1/2018 LEHIAKETA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

1. Erizainaren lanpostuan diharduten langileen mendean, erabiltzaileen banako arreta planean ezarritako oinarrizko beharrizanei lotutako programak gauzatu beharko ditu, eta erreferentziazko langilea izango da berari esleitzen dizkiotenetan. Era berean, jarraipena egin beharko du ezarritako betekizun eta protokoloekin bat etorriz.

2. Erabiltzaileen banako arreta planaren diseinuan parte hartuko du.

3. Erizainaren lanpostuan diharduten langileei lagunduko die edo, hala badagokio, eskuordetzez beteko ditu behar diren ekintza guztiak, besteak beste, botikak ematea, jarrerak aldatzea, tenperatura hartzea… Horiez gain, erabiltzaileek izandako gorabehera eta aldaketen berri eman beharko du, asepsiaz arduratuko da, hondakinak kenduko ditu eta erabilitako materialen mantentzea egingo du. Era berean, hezitzaileei lagunduko die, trebetasunak irakasteko eta horietan trebatzeko programak gauzatzeaz den bezainbatean.

4. Egoiliarren errehabilitazio fisiko, psikologiko eta sozialean parte hartuko du, haiek suspertu eta ahalik eta ongizaterik handiena ahalbidetzeko ekintzen plangintza egin eta bururatuko ditu eta, hala behar denean, zainketa aringarriak eta hiltzeko unean laguntza eskainiko dizkie bai erabiltzaileei bai familiei.

5. Erabiltzaileen ingurunea eta ondasunak (logela, ohea egitea, garbitasun tresnak, laguntza teknikoak…) behar bezala edukiko ditu eta horiek guztiak nahiz erabiltzeak ahalik eta ondoen egon daitezen ahaleginduko da. Antzemandako hutsuneen berri emango du eta, bidezkoa bada, laguntza emango du aldaketetan eta dagokion zerbitzura eramaten, bertan konpontzeko, eta gero jaso egingo ditu.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

6. Arropa zikina batu eta garbitzera eramango du. Garbitutakoan, erabiltzaileei banatuko die edo zerbitzu erkide egokietan utziko du, erabiltzaileen beharrizanak antolatu eta aztertuko ditu, eta antzemandako anomalia eta hutsuneen berri emango du.

7. Zerbitzu bakoitzean beharrezkoak diren materialak edo gaiak eskatu eta birjarriko ditu, hala nola xurgatzaileak, oihal xurgatzaileak, xaboiak, eskularruak, zapiak...

8. Egoiliarren bizitza pertsonala eta senideen artekoa sustatzeko jardueretan laguntza emango du, egoiliarren parte hartzea sustatuko du, behar den guztia prestatuko du (muntatzea, prestatzea eta desmuntatzea) jarduerak egiten diren lekuetan eta garapenean esku hartuko du (txangoak, jaiak, ibilaldiak, jolasak, irakurraldiak...).

9. Zehazten den euskarrian, ezarritako erregistro guztiak jasoko ditu, kasurako, gorabeheren eguneroko agiria, eginkariak, hilekoak, elikadura...

10. Egoiliarren elikadura beharrizanak zeharo aseko ditu. Horretarako, jan-edanak zerbitzatuko ditu ezartzen den eran eta ahoratzen lagunduko du, banako planari jarraiki, eta platerak zein gainerako tresnak gurdian edo mahai osagarrian jarriko ditu erabiltzaileak behar ez dituenean.

11. Barruko nahiz kanpoko kontsulta, jarduera, terapia edo errehabilitazio-saio eta abarretara joan behar diren pertsonei lagundu eta/edo eramango ditu eta, behar den neurrian, dena delako jardueran lagunduko du.

12. Diziplina anitzeko lantaldearen aldizkako bileretan parte hartuko du. Bilera horietan, zerbitzuaren antolakuntza eta egoiliarren egoera aztertzen dira, eta neurriak hartzen lagundu egingo du.

13. Errehabilitazio zerbitzuari dagokionez, fisioterapeutaren mendean, erabiltzaileak eramango ditu fisioterapia zerbitzura eta bertan arreta egin diezaieten prestatuko ditu, asepsiaz arduratuko da eta erabilitako tresna eta materialen mantentzea egingo du. Halaber, beharrezko errehabilitazio teknikak erabiltzen lagunduko du. Tratamendua amaitutakoan, janzten lagunduko dio erabiltzaileari, eta historiak zein tratamendu orriak jasoko ditu, kontrolatzeko xedez, eta erabiltzailea berriro eramango du.

14. Familiei kasu egingo die eta haiei lagunduko. Erabiltzailearekiko harremanak erraztuko ditu eta erabiltzaileek dagozkion profesionalentzako eskariak bideratuko ditu.

15. Halaber, aurretiaz azaldutakoen antzeko beste edozein eginkizun edota lan gauzatu beharko du, bere nagusiak agintzen badio eta interes orokorreko eta erakundearen helburuetarako lagungarria bada, eraginkortasun, ekonomia eta eragingarritasun printzipioei jarraituz.

DESGAITUEN HEZITZAILEA

1. Zuzeneko nagusiarekin batera (psikologo arduraduna), trebetasunak irakasteko eta horietan trebatzeko programak prestatzen parte hartuko du, eta geroago gauzatu egingo ditu, denbora jardueretan banatuz.

2. Erizain laguntzaileen lana gainbegiratu eta koordinatuko du, aurreko atalean esandako programak gauzatzeari dagokionez.

3. Tratamenduak egingo ditu eta bere ardurapeko taldean dauden desgaituentzat landutako banako eta taldeko programak gauzatuko ditu, psikologoak emandako arau eta jarraibideei jarraiki.

4. Trebetasunak irakasteko eta horietan trebatzeko programen jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu, lantaldearen ardura daukan psikologoarekin batera.

5. Aipatutako programen garapena eta eraginkortasuna ebaluatzen diren zentroko lantaldearen eta diziplina anitzeko lantaldearen bileretan parte hartuko du, desgaituek ahalik eta autonomia pertsonal eta sozial handiena lortzeko helburuz.

6. Nork bere ardurapeko desgaituen senideei eman beharreko informazioan parte hartuko du gainerako profesionalekin batera.

7. Erabateko ardura izango du elikadura, garbitasun, janari, garraio eta abarretako alderdiei dagokienez, zentrora datozen pertsonei behar bezalako arreta eskaintzeko xedez.

8. Modu osagarrian lan egingo du lantaldeko gainerako kideekin, bereziki, laguntzaileekin, lantaldeak proposatutako helburuak eta emaitzak lortzeko, zeregin guztietan elkarlanean arituta.

9. Erabiltzaileen urteko txostenak prestatuko ditu, bai eta eskatzen dizkioten uneko txostenak ere.

10. Halaber, aurretiaz azaldutakoen antzeko beste edozein eginkizun edota lan gauzatu beharko du, bere nagusiak agintzen badio eta interes orokorreko eta erakundearen helburuetarako lagungarria bada, eraginkortasun, ekonomia eta eragingarritasun printzipioei jarraituz.

LANERAKO IKASTEGIKO BEGIRALEA

1. Ezarritako programak garatuko ditu, bere ardurapeko erabiltzaileek egin beharreko zereginak eta jarduerak egunero esleituta, eta jarraipena egingo du norbanakoek nahiz taldeek lortutako emaitzak erregistratuta.

2. Programak lantzen parte hartuko du, informazioa emanez eta proposamenak eginez, erabiltzaileek ahalik eta autonomia pertsonal eta sozial handiena eskura dezaten.

3. Laneko materiala prestatu eta banatuko du, lagungarriak prestatuko ditu eta lagungarri horiek ezagutzen eta erabiltzen irakatsiko die bere ardurapeko pertsonei. Era berean, laneko portaera eta jarrera egokiei buruzko prestakuntza emango du, ordutegi, diziplina, parte hartze eta abarri dagokienez.

4. Ikastegiko lantalde iraunkorrekin edo aldi baterakoekin eta Desgaitasunaren Arloko lantaldeekin batera parte hartuko du.

5. Lantalde teknikoarekin batera, banako planen ebaluazioan eta diseinuan, laneko estrategietan, baterako programetan eta jarduteko protokoloetan parte hartuko du, prozesuan esku hartzen duten gainerako eragileekin koordinatuta.

6. Ikastegiko arduradunarekin eta lantalde teknikoarekin batera, garatutako jardueren ebaluazioa egiteko eta erabiltzaileen bilakaera aztertzeko bileretan parte hartuko du.

7. Adimen desgaitasuna duten pertsonekin batera, moldatze portaerak (AAIDD) indartu eta banaka landuko ditu, eguneroko bizimoduko autonomia pertsonala (jateko ohiturak, garbitasuna, joan-etorriak…) garatzeko xedez. Pertsonei laguntzeko behar diren oinarrizko zereginetan eta instrumentaletan arituko da, bai eta EBJ edo eguneroko bizitzako jardueretan (garbitasuna, jatea, garraioa, higienea) ere, ikastegira datozen pertsonekin.

8. Kanpoko zentroetara eta antolatutako jardueretan lagunduko die erabiltzaileei, behar duten laguntza guztia emanez eta erabiltzaileen parte hartzearen jarraipena eginez.

9. Ikastegiko arduradunarekin batera, lanen ekoizpena eta kalitatea planifikatu eta antolatuko ditu. Harremanetan egongo da lana ematen duten enpresekin.

10. Ikastegiko lantaldeekin batera, okupazio jarduerak diseinatuko ditu, ekoizpen lanaren gabeziaren ordezko aukera gisa, erabiltzaileek beste ohitura, gaitasun eta trebetasun batzuk gara ditzaten.

11. Senideen asanbladetako bileretan eta parte hartzeko batzordeetan parte hartuko du eta harremanetan egongo da senideekin eta egoitzetako beste profesional batzuekin, berez nahiz era antolatuan.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

12. Halaber, aurretiaz azaldutakoen antzeko beste edozein eginkizun edota lan gauzatu beharko du, bere nagusiak agintzen badio eta interes orokorreko eta erakundearen helburuetarako lagungarria bada, eraginkortasun, ekonomia eta eragingarritasun printzipioei jarraituz.

EGOITZAKO BEGIRALEA

1. Arduradun teknikoek egokitzat jotzen dituzten trebetasunak lantzeko jarduerak, laguntza jarduerak eta beste eskainiko dizkie baliabideak artatutako desgaituei, erabiltzaileek ahalik eta autonomia pertsonal eta sozial handiena eta gizarteratze egokiena eskura ditzaten.

2. Zehazten den eran, gainerako teknikariei lagunduko die baliabidea erabiltzen duten pertsonen laneko planak eta banako laguntzak prestatzen, eta informazio osoa, egiazkoa eta egiaztagarria emango dio unitateko arduradunari esandako pertsonen portaera, jarrera eta trebetasunen inguruan.

3. Desgaitasuna duten pertsonei lagunduko die oinarrizko jardueretan, hala nola jaten, janzten, gorputza garbitzen eta eguneroko bizitzari lotutako gainerako jardueretan, horien gaineko azalpenak ematen, ahal den neurrian, erabiltzaileek jarduera horiek guztiak era autonomoan egin ditzaten.

4. Egoitzan dauden pertsonei lagunduko die medikuaren kontsultara, larrialdietara eta ospitaletara, eta medikuak agindutako tratamenduen jarraipena egingo du.

5. Begiralearen ardurapeko egoiliarrei aisialdiko jarduerak eskainiko dizkie eta astialdia betetzen lagunduko die; horretarako, jarduerak antolatu eta horietan parte hartuko du.

6. Egoiliarrei irakatsiko die etxeko lanetan laguntzen, esate baterako, jatekoa zerbitzatzen, erratzez garbitzen, janaria prestatzen…

7. Zehazten den eran, egoitzako eguneroko lanari lotutako gorabehera guztien berri jasoko ditu idatziz.

8. Halaber, aurretiaz azaldutakoen antzeko beste edozein eginkizun edota lan gauzatu beharko du, bere nagusiak agintzen badio eta interes orokorreko eta erakundearen helburuetarako lagungarria bada, eraginkortasun, ekonomia eta eragingarritasun printzipioei jarraituz.

EGOITZAKO MANTENTZE LANEKO OFIZIALA

1. Egoitzaren zuzendariaren hierarkiaren mendean eta GOFEren Mantentze Arloko buruaren jarraibideei men eginez, lan eta konponketa txikiak egingo ditu eraikinean eta bertako instalazioetan, barrukoetan nahiz kanpokoetan, kasurako, ondokoetan: altzariak, makinak, laguntza teknikoak, elektrizitatea eta argiztapena, atea, leihoak, iturgintza, teilatuen eta estalduren azterketa, saneamendu sarea, pintura…

2. Eraikinari eta bertako instalazioei eragiten dieten gorabeheren jakinarazpenak jasoko dizkie egoitzako profesionalei eta gorabehera horien konponketa programatuko du.

3. Eraikinaren mantentze liburua beteko du. Horretarako aurreikusitako zereginak gauzatu eta idatziz jasoko ditu, eta arian-arian egiten diren balioa eta eragiketak erregistratuko ditu, instalazio bakoitzari ezarritako maiztasunaz, horien ezaugarriei jarraiki. Bereziki, eraikinak darabilen legionellaren aurkako tratamenduari buruzko datuak hartuko ditu eta horri dagokion dokumentazioa egunero gaurkotuko du. Era berean, mantentze liburua prestatzen lagunduko du, eta ideiak eman eta iradokizunak egingo ditu instalazioak nahiz eraikuntzako elementu esanguratsuenak ahalik eta ondoen kontrolatzeko.

4. Ondore horretarako kontratatzen diren enpresa baimenduek egin beharreko mantentzea duten instalazioei dagokienez, kontratuan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, batez ere, prebentziozko mantentzeari doazkion eragiketak (oro har, horiei eragindako araudian jasota daude). Instalazio horietan matxurarik edo gorabeherarik gertatuz gero, arazoaren berri jakinarazi beharko du ofizialaren zuzeneko arduradunak eta/edo instalazioaren mantentzea



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

egiten duen enpresak, eta matxura behar bezala konpontzen dela gainbegiratu beharko du. Aurretiaz programatutako lanak egiteko edo uneko arazoak konpontzeko, kanpoko enpresak edo profesionalak beharrezkoak direnean, lanen jarraipena egingo du eta, ahal den neurrian, laguntza emango du eta lanak behar bezala gauzatzen direla gainbegiratuko du.

5. Egoitzarako sarbideak, oinezkoentzat zein ibilgailuentzat, ahalik eta egoera egokienean edukitzen ahaleginduko da, bereziki, elurteetan, izozteetan eta ohiko sarrera eragozten duten beste inguruabar batzuetan, arriskuko egoerak saihestuta.

6. Egoitzatik aterako da materiala erostera, tresnak konpontzen eramatera eta ekartzera… Era berean, ordezko piezen eta lanabesen biltegia era egokian kudeatuko du.

7. Egoiliarrei eta egoitzako langileei arreta arteza emateko beharrezkoak diren elementu guztiak edo altzariak garraiatu, biltegiratu, muntatu, jarri eta, ahal badagokio, kenduko ditu, eta laguntza emango du ekitaldiak eta jarduerak antolatzen diren guneak muntatzen prestatzen eta desmuntatzen, hala nola jaialdietan, erlijiozko ekitaldietan eta abarretan.

8. Halaber, aurretiaz azaldutakoen antzeko beste edozein eginkizun edota lan gauzatu beharko du, bere nagusiak agintzen badio eta interes orokorreko eta erakundearen helburuetarako lagungarria bada, eraginkortasun, ekonomia eta eragingarritasun printzipioei jarraituz.

HARRERAGILE TELEFONOZAINA

1. Telefonoguneaz arduratuko da eta kanpotik egindako deiak hartu eta dagokion sailera edo pertsonarengana bideratuko ditu; halaber, eskatzen dizkioten deiak egingo ditu. Nahi den pertsona egon ezean, beharrezko oharrak edo mandatuak jaso eta geroago jakinaraziko dizkio.

2. Egoitzara sartzen diren eta bertatik irteten diren pertsonen kontrolaz arduratuko da; bisitariei arreta egin eta erregistratuko ditu, nora joan behar diren azalduko die eta bisitaren ezaugarrien berri emango die pertsona eta/edo sail egokiei. Azkenik, bisitarien erregistroa zainduko du ezartzen den eran. Era berean, erabiltzaileen irteerak kontrolatu eta erregistratuko ditu eta, geroago, horien berri jakinaraziko die hierarkiako nagusiari.

3. Egoitzako megafonia erabiliz, komunikatzen dizkioten oharrak zabalduko ditu langileak edo erabiltzaileak aurkitzeko, egoiliarrei informazioa emateko…

4. Egoitzara heltzen diren gutunak eta paketeak jaso eta sailkatuko ditu eta geroago banatuko ditu. Era berean, hornitzaileei azalduko die merkantziak non utzi behar dituzten edo egoitzako langileekiko elkarrizketak non egin behar dituzten.

5. Egoitzara sartzeko ateak ireki eta ixteaz arduratuko da, egoitzako zuzendaritzak ezarritako ordutegia aintzat hartuta.

6. Egoitzako bulego-aretoetako giltzak zainduko ditu eta egoki gordeko ditu harrera lekuan giltzak erabiltzen ez direnetan.

7. Halaber, aurretiaz azaldutakoen antzeko beste edozein eginkizun edota lan gauzatu beharko du, bere nagusiak agintzen badio eta interes orokorreko eta erakundearen helburuetarako lagungarria bada, eraginkortasun, ekonomia eta eragingarritasun printzipioei jarraituz.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.alava.net/ifbs/

**LANPOSTUEN ZERRENDA**
**III ERANSKINA**
**1/2018 LEKUALDATZE LEHIAKETAREN LANPOSTUAK**

PAG.- 1

| | | | | | | LASPOSTUAN JARDOTEKO BETEBEHARRAK | | | | LANSARIAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| KODEA | IZENA | L M | DED. ERR. | BETE. MODUA | ADMINIS. | SAIKAP. T E A K | IKASK. TITUL. | HIZKUN. ESKAKI. | BERAR. EZAG. | D.O. MAIL | BERARIA. OSAGARR. | LANTOKIAREN HERRIA |

**ZUZENDARITZA : 80.2 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA**

**ARLOA : 80.2.02 ADINEKOAK**

**UNITATEA : 80.2.02.1 AJURIA EGOITZA**

| KODEA | IZENA | L M | DED. ERR. | BETE. MODUA | ADMINIS. | SAIKAP. T E A K | IKASK. TITUL. | HIZKUN. ESKAKI. | BERAR. EZAG. | D.O. MAIL | BERARIA. OSAGARR. | LANTOKIAREN HERRIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 55.002 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 12/2002 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.005 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 06/2014 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.006 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.007 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 06/2014 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.008 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.014 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.016 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 06/2014 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.018 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.019 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.020 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.021 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 12/2000 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.026 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.047 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 01/1997 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.048 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.052 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 12/1999 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.369 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.475 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | 50,00 | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 8.130,15 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.476 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | 50,00 | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 8.130,15 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.477 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | 50,00 | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 8.130,15 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.478 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | 50,00 | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 8.130,15 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.479 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | 50,00 | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 8.130,15 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.480 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | 50,00 | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 8.130,15 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.486 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 01/2013 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.alava.net/ifbs/

# LANPOSTUEN ZERRENDA
# III ERANSKINA
# 1/2018 LEKUALDATZE LEHIAKETAREN LANPOSTUAK

PAG.- 2

| KODEA | IZENA | L M | DED. ERR. | BETE. MODUA | ADMINIS. | LASPOSTUAN JARDOTEKO BETEBEHARRAK SAIKAP. T E A K | IKASK. TITUL. | HIZKUN. ESKAKI. | BERAR. EZAG. | LANSARIAK D.O. MAIL | BERARIA. OSAGARR. | LANTOKIAREN HERRIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.496 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | 50,00 | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 8.130,15 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 67.002 | TELEFONOZAIN HARRERAGILEA | EB | | L | GOFE | D 1 | | 2 01/1998 | | 13 | 12.937,96 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 | | | | | | |

UNITATE HONI ESLEITUTAKO LANPOSTU KOPURUA: 25

*UNITATEA : 80.2.02.1 AJURIA EGOITZA Postuen osoa 25*

**UNITATEA : 80.2.02.10 LAKUA EGOITZA**

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 55.071 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.075 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 06/2014 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.081 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.082 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.093 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 12/2002 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.094 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.106 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.109 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 12/1999 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.355 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | 60,00 | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 9.756,18 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.356 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | 60,00 | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 9.756,18 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.358 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | 60,00 | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 9.756,18 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |

UNITATE HONI ESLEITUTAKO LANPOSTU KOPURUA: 11

**AZPIUNITATEA : 80.2.02.10.1 LAKUA PSIKOGERIATRIKO EGUNEKO ZENTROA**

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 55.482 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |

*AZPIUNITATEA : 80.2.02.10.1 LAKUA PSIKOGERIATRIKO EGUNEKO ZENTROA Postuen osoa 1*

*UNITATEA : 80.2.02.10 LAKUA EGOITZA Postuen osoa 12*

**UNITATEA : 80.2.02.3 TXAGORRITXU EGOITZA**

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 55.145 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.146 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.147 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 12/1999 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |
| | | | | | | 2 1 3 | 306 | | | | | |
| 55.148 | ERIZAIN LAGUNTZAILEA | EB | | L | GOFE | D 2 1 3 | 302 | 2 12/2002 | | 14 | 16.260,30 | VITORIA-GASTEIZ |

ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
